

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

#### **Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko nahiz gidoiak idazteko laguntzak emateko 2021eko deialdiaren laburpen-iragarkian atzemandako akatsa zuzentzea**

2021eko apirilaren 9ko bilkuran, aipatutako deialdiaren laburpen-iragarkian atzemandako akatsa zuzentzeko erabakia onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak. Horrenbestez, zuzentzeko erabakia argitara ematen da, denak jakinaren gainean egon daitezen.

2021eko otsailaren 26an egindako bilkuran, "Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko 2021eko laguntzak" berariazko udal-programa arautzeko oinarriak eta deialdi publikoa onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak (2021eko martxoaren 15eko ALHAO, 30.zk.).

2021eko martxoaren 16ko idazki baten bidez, aipatutako ALHAOren (2021eko martxoaren 15ekoa, 30. zk.) laburpen-iragarkian akats bat dagoela jakinarazi dute Enpresen Udal Zerbitzuko langile teknikoek; akatsa, hain zuzen, lehen klausulako ("Onuradunak") f) atalean dago, eta zuzenketa hau proposatzen dute:

Honela dio:

".. Aurreko udal deialdietan laguntza jaso zuten proiektuak ere ezingo dira aurkeztu"

Honela behar du:

"Aurreko udal deialdietan, modalitate berean, laguntza jaso zuten proiektuak ere ezingo dira aurkeztu"

Ondorioz, aipatutako ALHAOn argitaratutako deialdi horren oinarriek ez dute akats hori jada.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Azaldutakoaren haritik, eskumenak eskuordetzeko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 21ean hartutako erabakia aplikatuz, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki hau har dadila proposatzen du:

#### Erabakia

Lehena. 2021eko martxoaren 15ean ALHAOn (30. zk.) argitaratutako "Gasteizen ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko 2021eko laguntzak" udal-programaren deialdiaren laburpen-iragarkian egitezko oker bat dagoela ikusirik, lehen klausulako ("Onuradunak") f) atalaren idazkeran, hain zuzen ere, zuzenketa hau onestea:

Honela dio:

".. Aurreko udal deialdietan laguntza jaso zuten proiektuak ere ezingo dira aurkeztu"

Honela behar du:

“Aurreko udal deialdietan, modalitate berean, laguntza jaso zuten proiektuak ere ezingo dira aurkeztu”.

Bigarrena. Akatsaren zuzenketa ALHAOn eta udalaren webgunean argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 12an

*Administrazio Zerbitzuko burua*  
*LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*